

KOSTU EGITURAK

1. Kostu Finkoak

Kostu finkoak produkzio edo salmenta mailaren arabera aldatzen ez diren kostuak dira.. Gure enpresaren kostu finko ohikoenak honakoak dira:

- **Lokalaren alokairua:** Denda fisiko baten lokalaren alokairu edo hipoteka ordaintzea kostu finkoa izango da, bezero kopurua edo salmentak aldatu arren.
- **Langileen soldatak:** Funtzio zehatz bat betetzen duten langileen soldatak (dendaren kudeatzailearenak...), salmenten arabera aldatzen ez direnez, kostu finkotzat har daitezke.
- **Mantentze eta aseguruak:** Lokalaren mantentze-lanak, elektrizitatea eta ur kontsumo minimo bat, aseguruak, eta segurtasun gastuak.

2. Kostu Aldakorrak

Kostu aldakorrak denda baten salmenten edo produkzio mailaren arabera aldatzen direnak dira.

- **Produktuaren kostua:** Gure kasuan, arropa trukatzan denez, ez du arropak hornitzaileei erosi behar, beraz ez da egongo kosturik.
- **Packaging:** Erosketa poltsak, edo produktuak babesteko osagarriak. Salmentak handitzen badira, packaging gastuak ere handitu egingo dira.

3. Eskalako Ekonomiak

Eskalako ekonomiak denda batek kopuru handiagoetan lan egiteagatik lortzen dituen abantaila ekonomikoak dira. Arropa denda batean eskalako ekonomiak hauek izan daitezke:

- **Erosketan deskontuak:** Zenbat eta produktu gehiago trukatu, aukera handiagoa izango dute bezeroek beste arropa bat trukatzeko.

4. Hedadura Ekonomiak

Hedadura-ekonomiak denda batek bere jarduera-esparrua zabaltzeagatik lortzen dituen kostu-abantailak dira.

- **Produktu osagarriak eskaintzea:** Arropaz gain, osagarriak (poltsak, zapatak, bitxiak) edo bestelako produktuak eskaintzen badira, bezeroak dendan erosketak gehitu ditzake.
- **Zerbitzu osagarriak eskaintzea:** adibidez, jostun zerbitzua, arropa bat zulo batekin ekartzen badute eta orokorrean baldintza onean badago, 3 euro ordainduta, bezeroak, josteko aukera izango du. Horrez gain, personal shopper zerbitzua emateak diru-sarrera gehigarriak ekar ditzake.